

# PREKARIETATEA AKABATUKO DUGU!

Europako Justizia Auzitegiaren epai berriek (2016ko iraila), herri-administrazioetako aldi baterako kontratuei buruzkoak, akuilu bat izan behar dira arlo publikoan dauden aldi baterako enplegu tasa onartezinen aurkako borrokarako. Epai hauek bi arazo larriren ingurukoak dira: aldi baterako kontratuen abusua eta edozein aldi baterako kontratu amaitzean kalteordaina jasotzeko eskubidea.

## Auzitegi europarrak honakoa ebatzi du:

- Ezin da onartu aldi baterako kontratu edo izendapenak berritzaile, hauek osatzen dituzten beharrezko iraukari eta egonkorak direnean, eta ez behin-behinekoak.
- Diskriminazioa da aldi baterako kontratu bat amaitzean -edozein motatakoa dela ere- kalteordaina jasotzeko eskubidea ukatzea.
- Uneotan ikusteko dago Estatuko auzitegiek europar epaien aplikazio praktikoa gauzatzerakoan zer ebatziko duten.

## Horrenbestez, epai europarren bermea dugula, ELAk auzitegietan puntuon aldeko defentsarekin jarraituko du:

- 1 • Lege-iruzurrean egindako aldi baterako izendapen eta kontratuak lanpostu hutsa bete arte “mugagabeko ez finko edo aldi-baterako” bihurtzea.
- 2 • Lan egindako urte bakoitzeko, 20 eguneko soldata ordainetan, 12 hilabeteko mugarekin, aldi baterako izendapen edo kontratuak bukatzean.

## IRUZURREZKO ALDI BATERAKO KONTRATUA ERREKLAMATZEA

### Zein kasutan erreklama daiteke?

Erreklamatzeko aukera dago aldi baterako kontratuetan iruzurra gertatu denean, hots, administrazioak aldi baterako kontratu edo izendapenak beharrezko iraukari edo estukturaletarako erabiltzean. Kasuotan kasu bakoitzaren xehetasunak aztertu behar dira.

### Zer eska daiteke?

Lanpostu hutsa arauz osatu arte “mugagabe ez finko” edo “aldi-baterako” izaera aitortzea.

### Nola erreklamatu?

#### - Langile funtzionario estatutarioak

Aldi baterako izendapenak irauten duen bitartean egin daiteke eskaria, edota amaitzen deneraino itxaron.

Amaiera arte itxaronez gero, jakinarazpena jasotzen den unetik hilabeteko epea dago erreklamatzeko.

Ezinbestekoa da erreklamazioa epe honetan egitea; bestela, kargu-uzte hori erreklamatzeko aukera galduko litzateke.

Kasu honetan kargu-uztea indargabetzea eskatuko litzateke, eta postu berera itzultzea, “lanpostu hutsa arauz bete arteko aldi baterako” moduan.

#### - Laboralak

Europar epaiek ez dute ezer berririk ebazten langile laboralen abusuzko aldi baterako kontratuei buruz; izan ere, Auzitegi Gorenak aurrez sortua baitzuen “mugagabeko ez finkoa” delako figura. Kasuotan: Eskaria egin daiteke kontratuak irauten duen artean, amaiera arte itxaron gabe. “Mugagabeko ez finko” aitortzea eskatu behar da; hau da aukerarik gomendagarriena.

Kontratua amaitu arte itxaronez gero, kaleratzeagatik erreklamazio bat egin behar da, 20 eguneko epearen barruan.

Mugagabeko ez finkoaren aitortzea eta kaleratze bidegabekoa eskatuko litzateke (administrazioak aukera izango luke langilea berronartzeko edota kalteordaina kitatzeko).



## KALTEORDAIN ESKAERA

# 2

### Nork erreklama dezake?

Iraupen mugatuko kontratu laborala edota izendapen administratiboa (estatutario / funtzionario) izan duten guztiek, kontratua / izendapena amaitzean, lan egindako urte bakoitzeko 20 soldata-eguneko kalte-ordaina jaso ez badute.

### Erreklamatzeko epea

Laborala bazara, urtebeteko epea dago, aldi baterako kontratua amaitzen denetik. Funtzionario edo estatutarioa bazara, epea kargu-uztea izan eta 4 urtekoa da.

# 3

## NORA JO; BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

Egoera hauetako batean bazaude jar zaitez harremanetan ELAko atal sindikalarekin edo delegatuekin; aurrez, presta itzazu zure lan-egoerari buruzko agiri guztiak (kontratu / izendapenak, lan-bizitza, kargu-uzte edo amaieraren jakinarazpena...).

Gobernuak dagoeneko iragarri du lege-erreforma bat egingo duela honi buruz; ziurrenik erreforma atzerakoia izango da, eta eskubideak areago murriztuko ditu. Horregatik...

# 4

## Orain duzu erreklamatzeko eta mobilizatzeko garaia. Ez geldirik egon!!

Garai hauetan ez da onuragarria bakarrik egotea.

Zure eskubideak hobeto defendatuko dituzu, gehiago errespetatuko zaituzte antolatuta bazaude.

**EZ ZAITEZ KANPOAN GERA, SAR ZAITEZ SINDIKATUAN**

**Afiliatu zaitez!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

f t [www.ela.eus](http://www.ela.eus)